



IRABAZI ITURRIAK

Edozein produktu saltzean ezinbestekoa da diru sarrerak izatea. Horretarako salmenta prezioa gastuak baino handiago izan behar du. Hori horrela gertatzeko, materialen prezioak kontuan hartu behar dira, izan ere, materialetan gastu handia izanez gero, oso zaila izango da irabaziak ateratzea.

Lehenik eta behin, produktu bakoitzaren prezioa finkatu egingo dugu, 39,99€-tan alkatxofa bakoitza. Baina, kontuan hartu behar dugu diru guzti hori ez direla irabaziak izango, izan ere, produkzioak ere kostu bat suposatzen du. Horiek aztertu ondoren, aurreikusten ditugun gastuak 29,99€-koak izango dira. Beraz, 10€ irabaziak izango ditugu salmenta akoitzeko.

Bigarrenik, oso garrantzitsua da ordaintzeko metodo ezberdinak izan ahal izatea, izan ere, bezeroaren erosotasuna da gure helburu nagusia. Alde batetik, gure enpresan bertan, alkatxofak metalikoan eta txartelaren bidez ordaintzeko aukera emango dugu. Metodo honen alde positiboa, produktua probatu ahal izango dela da, eta momentuan bertan erosteko erabakia hartuko du bezeroak. Beste aldetik, sarean webgunea izango dugunez, bertatik erosi aukera egongo da. Bertan produktuaren informazio guztia eskuragarri izango dute.

Hirugarrenik, hainbat enpresa handirekin egingo dugu lan, Amazon eta Roca. Amazonek mundu osora bidaltzeko aukera du, eta honek salmentan asko lagunduko digu, izan ere, edozeinek erosteko aukera izango du, nongoa den kontuan hartu gabe. Roca-k berriz, enpresan bertan gure produktuak salgai izango ditu eta dena hauek Espainia guztitik banatuta egongo dira.

Azkenik, garbi dago enpresa bat sortzean, hasieran ez direla irabazi asko egongo, izan ere, enpresa martxan jartzea kostu handia suposatu dezake. Ondorioz, lehenengo hilabetetan diru galerak izatea aurreikusten dugu. Baina denbora aurrera doan heinean, sare sozialen eta iragarkien bidez gure produktua zabaltzen hasiko da eta jende gehiagok ezagutuko du, beraz, salmentak eta horrekin batera irabaziak igo egingo dira.

Ondorioz, garbi dago, nahiz eta hasieran ez lortu nahiko genituzkeen diru sarrerak, hilabete batzuk pasa ondoren, gure produktuak dituen ezaugarri bereziei esker, irabazi garrantzitsuak izango ditugu gure enpresarentzat.